




AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGIÓN AQUITAINE EUSKADI



Prentsaurrekoa

Akitania-Euskadi 2016 proiektu- deialdiaren 2. saioaren aukeraketa

Prentsa-oharra





AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI



- **Akitania-Euskadi 2016 proiektu-deialdiaren 2. saioaren aukeraketa: Euroeskualdeko lankidetza estrategikoak**

Akitania-Euskadi Deialdiaren helburua da eragile sozial eta ekonomikoen ekintzak sustatzea, Euskal Autonomia Ekidegoan eta Akitania Limousin Poitou-Charentes Eskualdean kokatutako bazkideen arteko proiektu komunak burutzeko.

Akitania-Euskadi Euroeskualdeak, haren 2014-2020 Plan estrategikoan (Hendaian 2014ko abenduaren 19n aurkeztutakoa), ekintzarako lehentasunak ezarri zituen eta eskualde-lankidetzarako finantza-tresna nagusiaren esku-hartze esparrua zehaztu zuen, hau da, Akitania-Euskadi proiektu-deialdia, 450.000 €-ko urteroko aurrekontua duena.

2016an, LLETen Asanbladak erabaki du bi proiektu-deialdi plazaratzea. Horietako batek 200.000 €-ko zuzkidura dauka, eta «Europa 2020» strategiaren barruan dagoen euroeskualde-estrategiaren 2. ardatzari dagokio: «Ezagutzaren ekonomia – berrikuntza – enpresen lehiakortasuna».

Euroeskualde-estrategiari esker, Akitania-Euskadi gunean lankidetza garatzeko 6 sektore ekonomiko gakoak identifikatu ziren:

- **Aeronautika eta garraioa**
- **Osasuna/Bio-osasuna**
- **Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria**
- **Eraikuntza iraunkorra, egurra**
- **Energia berriztagarriak**
- **Itsasoko eta kostaldeko baliabideak**

Asmoa da gunearen finantza-baliabideak sektore gako horietara bideratzea, eta batik bat lankidetza-eta integrazio-maila txikiagoa dutenetara.

Hala, Euroeskualdeak erabaki du **euroeskualde-lankidetza estrategikoak** finantzatzea, sektore horietako eragileek aukera izan dezaten elkartzeko, bat egiteko, osagarritasunak aurkitzeko eta euroeskualdean nolabaiteko «masa kritikoa» lortzeko, helburua izanik sinergiak sortzea eta **erronka**

Akitania-Euskadi Euroeskualdea / Eurorregión Aquitania-Euskadi / Eurorégion Aquitaine-Euskadi

Rue Leku Eder - ZI des Joncaux - F. 64700 Hendaye / T. 00 33 5 59 01 64 80 / Fax. 00 33 5 59 70 18 50

www.aquitaine-euskadi.eu / e-mail : aquitaine-euskadi@aquitaine-euskadi.eu



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI



berriei batera aurre egitea: ikerlanak, berrikuntza-proiektuak, nazioartekotze-egitasmoak, europar deialdiak prestatzea...

Lankidetzak horiek **12 eta 18 hilabete bitarteko animazio-programetan** oinarrituta daude, eta sinergia eta euroeskualde-dinamika berriak sortzen dituzten mintegien, topaketen, bisiten, B2B saioen... bidez, sektore horietako eragile gakoak sarean jartzen laguntzen dute. Helburu dute metodo, produktu edo zerbitzu berritzaileak garatzeko proiektuak azkartzea eta hedatzea, **unibertsitatetik enpresarainoko eragile nagusiak bilduz, «euroeskualde-lankidetzak estrategikoen» inguruan.**

Ilido horretatik, 2015ean, LLETen Batzorde Betearazleak 100.000 €-ko aurrekontua duten 4 lankidetzak-egitasmo aukeratu zituen (% 50ean finantzaturakoak):

- **EVA (Euskadi Vin Aquitania)** ardo-filialaren gainean (nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorea)
- **Olla! Com**, irristatze-garraioen industriaren gainean egituraturakoa (itsasoko eta kostaldeko baliabideen sektorea)
- **From Seanergies to Seanergy**, itsas energien gainean (energia berriztagarrien sektorea)
- **Chronicity Valley**, gaixotasun kronikoen gainean (osasunaren eta bio-osasunaren sektorea)

- **2016 proiektu-deialdiaren 2. saioaren aukeraketa:**

Euroeskualdearen Batzorde Betearazlea joaneko urriaren 4an bildu zen Hendaian, Akitania-Euskadi 2016 proiektu-deialdiaren 2. saioaren barruan aukeratutako proiektuen zerrenda jakinarazteko. Saioak **200.000 €**-ko aurrekontua dauka, guztira.

Hona hemen aukeratutako proiektuak:

- **Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektorean, «Euskabiom»**

Akitania-Euskadi Euroeskualdea / Eurorregión Aquitania-Euskadi / Eurorégion Aquitaine-Euskadi

Rue Leku Eder - ZI des Joncaux - F. 64700 Hendaye / T. 00 33 5 59 01 64 80 / Fax. 00 33 5 59 70 18 50

www.aquitaine-euskadi.eu / e-mail : aquitaine-euskadi@aquitaine-euskadi.eu



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI



- ✓ Bazkideak: Hazi eta Baso Jabetzako Eskualde Zentroa (CRPF Aquitaine), GEIE Forespir-ekin batera
- ✓ Aurrekontua: 60.501 €
- ✓ Diru-laguntza: 30.251 €

Proiektuak proposatzen du baso-jatorriko biomasa erabiltzea euroeskualdearen esparruan: erabileren arabera Euroeskualdeko eremuan eskuragarri dauden egur-bolumenen ikuspegi argia eta zehatza edukitzea eta biomasaren eta lurraldea hornitzeko filialen balio-katea aztertzea.

Proiektuaren berezitasuna da haren helburuak baso-ekoizpenaren eta -kudeaketaren, landa-garapenaren eta energia berriztagarrien eremuan jorratzen dituela, besteak beste, eta, horrez gain, ereindako basoaren bidez, Europako garrantzitsuenen artean dagoen baso-sektore bat dibertsifikatzen du.

- **Energia berriztagarrien sektorean** (bi proiektu aukeratu dira), «**BlueSARE**» eta «**AAOE**»

BLUESARE

- ✓ Bazkideak: Euskadiko Energia Klusterra eta Euskal Kosta-Aturri aglomerazio-elkargoa
- ✓ Aurrekontua: 90.500 €
- ✓ Diru-laguntza: 45.250 €

Helburuak dira itsas energia berriztagarrietara bideratutako euroeskualde-eskaintza bultzatzea, bertako enpresei eta antolatzaileei aukera ematea nazioartean sektoreko erreferente gisa posizionatzeko, azpiegituren eta plataformen ikusgarritasuna maximizatzea...

BlueSARE egitasmoak euroeskualdearen eremuan konektatuko ditu sektoreko eragile nagusiak, euroeskualdearen balio-katea itsas energien esparruan elkarrekin aztertzeko eta merkatu-aukerak analizatzeko.

Euroeskualdean sinergia eta dinamika berriak sortzera bideratuta dagoen animazio-programa bat dauka. Nazioarteko ekitaldietan batera bertaratzea (Marine Energy Week de Bilbao...)

AAOE : Acoustic around ocean energies

- ✓ Bazkideak: Energie de la Lune eta Azti Tecnalia
- ✓ Aurrekontua: 100.000 €

Akitania-Euskadi Euroeskualdea / Eurorregión Aquitania-Euskadi / Eurorégion Aquitaine-Euskadi

Rue Leku Eder - ZI des Joncaux - F. 64700 Hendaye / T. 00 33 5 59 01 64 80 / Fax. 00 33 5 59 70 18 50

www.aquitaine-euskadi.eu / e-mail : aquitaine-euskadi@aquitaine-euskadi.eu



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI



✓ Diru-laguntza: 50.000 €

Mugaz gaindiko dinamika batean oinarritzen da, ozeanoei eragiten dien arazo bat jorrazteko: itsas energeiei lotutako teknologien soinu-igorpenak ulertzea. Asmoa da sistemen optimizazioa sustatzea, arintze-baliabideez hornitzea eta Europara eta nazioartera egokitutako legedi bati probetxu ateratzea.

Eraginak neurtzeko bi ekoizpen-plataforma esperimental proposatu dira ardatz gisa: BIMEP (Mutriku), energia hulomotrizera bideratuta, eta Bordelgo Port de la Lune, energia hidraulikora bideratuta.

Bi proiektu horiek «From Seanergies to Seanergy» 2015eko proiektu deialdiaren barnean finantzatutako lankidetzaren bidez eratu dira.

- **Itsasoko eta kostaldeko baliabideen sektorean, «Turquoise 00»**

- ✓ Bazkideak: UPV/EHU, Université de Bordeaux eta Université de La Rochelle
- ✓ Aurrekontua: 120.000 €
- ✓ Diru-laguntza: 60.000 €

Akitania Berriko eta Euskadiko unibertsitateak Bizkaiko Golkoaren hazkuntza urdinaren eta berrikuntza berdearen inguruan biltzea du helburu, itsas estazioak eta behatokiak sarean jarriz.

Xedeak dira ikerketaren, ozeanografia-prestakuntzaren eta itsas bioteknologien eremuan baterako ikerlanak sustatzea, berrikuntza teknologikoa piztea eta mugaz gaindiko sarea sortzea, hazkuntza urdinaren eta berrikuntza berdearen garapenean parte hartzen duten europar proiektuen deialdietara zuzentzeko.

Euroeskualdeak **900 km inguruko kostaldea** dauka, eta ozeanografia-ikerketako 3 laborategi handi bilduko ditu atlantiar kostaldean, eta, bide batez, Poitou-Charentes eskualde zaharraren eragile bat finantzatuko du.

• **Akitania-Euskadi Euroeskualdeari buruzko hitz batzuk**

Akitania-Euskadi Euroeskualdea / Eurorregión Aquitania-Euskadi / Eurorégion Aquitaine-Euskadi

Rue Leku Eder - ZI des Joncaux - F. 64700 Hendaye / T. 00 33 5 59 01 64 80 / Fax. 00 33 5 59 70 18 50

www.aquitaine-euskadi.eu / e-mail : aquitaine-euskadi@aquitaine-euskadi.eu



AKITANIA-EUSKADI EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN AQUITANIA EUSKADI
EURORÉGION AQUITAINE EUSKADI



- Bat egin duten bi eskualde dira, europar ikuspegi batetik bideratutako lurralde-proiektua garatzeko. Europar Batasunaren politikak gure eskalara eramaten ditugu, mugak gaindituz.
- 2011n sortu zenetik, LLET Akitania-Euskadi Euroeskualdeak hainbat jarduera burutu ditu euroeskualdean lankidetzaz sustatzeko, Akitaniaren eta Euskadiren arteko kohesio ekonomikoa eta soziala indartzeko asmoz.
- Laster, Nafarroa Euroeskualdera atxikiko da (urriaren amaieran).
- Euroeskualdeak 9 milioi biztanle inguru izango ditu, eta, hortaz, Europaren % 2 hartzen du.
- Gaur egun, 2 M € inguruko aurrekontua dauka urteko, bi eskualdeen kotizazioen eta hein batean europar funtsen emaitza dena.